

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua martxan jartzeko, kostu batzuk izango ditugu. Gure ideia azaldu dugun bezala asialdia, formakuntza eta aholkularitza eskaintzea da, ahal den neurrian kanpo espazioa erabiliz. Horretarako ez dugu lokal handirik behar, eta beharrezkoa izatekotan udalekin kontaktuan jarri eta herriko baliabideak aprobetxatzea dugu helburu. Behar izango duguna lokal txiki bat da, bilera eta materiala gordetzeko modukoa. Gure bazkide baten familiak Durangon duen lokala erabiliko genuke. Beraz, obra txiki bat egin beharko genuke; margoztu, argia eta uraren instalazioak, altzariak erosi...

Zenbait asialdi edo ekintzetarako materiala erosi beharko dugu. Formakuntzak guk emandakoak zein kontratatutako hizlari batek emandakoak izatea aurreikusten dugu.

Alde batetik bestera mugitzeko kotxea edo garraio publikoa erabiliko genuke. Kotxea badugu, beraz izango genituzkeen gastuak gasoila eta garraio publikoan gastatutakoak lirateke.

Harremanak egiteko eta gure enpresa ezagutzera emateko ordenagailu pare bat eta mugikor bat beharko genituzke.

Enpresan lan egingo dugun bostok soldata berdina izango genuke, baina soldata hauek aldakorrak lirateke, hau da, lortutako emaitzen arabera; irabazten duguna kostu guztiak ordaindu ondoren, geldituko litzatekeena denon artean banatuko genuke. Kontutan izanda, irabazteko asmorik gabeko erakunde bat garela, soldata hauek beti ere beharren arabera izango dira, eta hilabeteren batean irabazitakoa gehiago baldin bada, irabazi hauek gure helburuetara bideratuko genituzke.

Horrelako proiektuak martxan jartzerakoan hasieran gutxi irabaziko dugula ere kontutan hartzen dugu. Proiektua martxan jartzen dugunean soldata finko bat izatea ere aurreikusten dugu.

Hurrengo taulan zehazten ditugu hileko eta urteko gastu orokorrak:

GASTUAK	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
Lokalaren obra	<p>GUZTIRA 5.300€</p> <p><i>Instalazio elektrikoa: 2.500€</i> <i>Iturgintza: 1.000€ (bainugela bat, instalazio arrunta; ur hotza eta beroarentzako hodiak + hustubideak)</i> <i>Margoketa: 1.000€</i> <i>Altzariak: 800€</i></p> <p>Hau guztia 2 urtetara finantzatua, interesik gabe.</p>	221€	2.652€
Materiala Formakuntzak	*eskaintzaren arabera desberdina izango da. Estimaten ditugun gastuak dira hauek.	500€	6.000€
Gasola eta garraio publikoak	Estimaten ditugun gastuak dira	200€	2.400€
Bi ordenagailu, inpresora eta mugikor bat	<p>Ordenagailu bakoitzak 600€ Inpresorak 70€ Telefonoak 140€ Hauek urte batean finantzatuak.</p> <p>Mugikorra eta internet tarifa, Euskaltekin, 24,9€ lehenengo 6 hilabeteak eta ondoren 60€</p>	117,5€	1.400€
		24,90€ edo 60€	509,€ (24,90*6+60*6)
Soldatak	Aldakorrak, baina estimaten dugunaren arabera hasierako hilabeteetako soldatak hurrengoak lirateke.	500*5= 2.500€	30.000€
Marketing gastuak	Triptikoak, kartelak...	50€	600€
	GUZTIRA	3.648,50€	43.782€